

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira eta eskabidea aurkezteko datan jadanik egikaritu diren inbertsioak finantzatzera bideratuko dira, hain zuzen ere, honako mota honetako inbertsioak:

- a) Informatika-ekipamenduak eta horien aplikazio eta osagarriak erosi eta ezartzea, betiere enpresaren kudeaketa- edota merkaturatze-prozesuetan hobekuntza ekartzen badute. Halaber, Wi-Fi guneak jartzeko laguntza emango da.
- b) Euskadiko Turismoko Irisgarritasun Eredura atxikitako establezimenduen irisgarritasuna hobetzea, zerbitzuak pertsonen dibertsitate funtzional desberdinetara (fisikoa, bisuala, entzunezkoa, intelektuala eta organikoa) egokituz.
- c) Erakargarritasunaren hobekuntza ekarriko duten inbertsioak baita zerbitzuaren eskaintzari balio erantsia emango diotenak ere.

Inbertsio diruz lagungarriak honako hauek izango dira:

- c.1.- Zerbitzu turistikoa bezeroei eskaintzen dieten establezimenduak dituzten enpresen kasuan, lokala berritzea eta modernizatzea (1) eta establezimendu horien lehiakortasuna hobetzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua.
- c.2.- Aurreko idatz-zatian identifikatu ez diren enpresen kasuan, jarduera turistikoaren oinarria diren materialen, ekipamenduen eta elementuen modernizazioa (esaterako, kirol-materialak, audio-gidak eta abar).
- c.3.- Terrazak moldatzea eta modernizatzea urte osoan erabilera turistikoa izateko.
- c.4.- Garraioak berritzea eta egokitzea (erosketa salbuetsita) erabilera turistikorako.

(1) *Turismo-zerbitzuak eskaintzen dituzten establezimenduen **eraberriketen eta modernizazioaren** kasuan, eraberritzea egin aurretik jardunean ari ziren lokaletan egindako inbertsioak izango dira diruz lagungarriak. Beraz, turismo jardunean hastekoak diren lokalak **prestatzea edo egokitzea** kanpoan geratzen da.*